

idazkaritza-kontuhartzailletza

ESKORIATZAKO MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIAN DAUDEN GARAJE ITXIEN ERABILERA BAIMENAREN ESLEIPENA ARAUTU BEHAR DUEN BALDINTZA AGIRIA

1. BALDINTZA. HELBURUA.

Baldintza agiri honen helburua da Eskoriatzako Manuel Muñoz udal kiroldegiko sotoan dauden bi solairuetako 16 garaje plaza itxiak erabiltzeko baimenak esleitzeko baldintzak ezartzea.

Jarraian, esleitu beharreko erabilera-baimena duten garaje-plazak zerrendatzen dira, eta baita horietako bakoitzaren m² kopurua ere.

<u>BEHEKO SOLAIRUA</u>	<u>PARTIZIPAZIO KUOTA.</u>	
Garaje plaza zenbakia: 2.....	14,87 m2	1,51
Garaje plaza zenbakia: 3	14,95 m2	1,52
Garaje plaza zenbakia: 4	15,48 m2	1,58
Garaje plaza zenbakia: 5	15,48 m2	1,58
Garaje plaza zenbakia: 6	15,48 m2	1,58
Garaje plaza zenbakia: 7	15,48 m2	1,58
Garaje plaza zenbakia: 8	14,95 m2	1,52
 <u>GOIKO SOLAIRUA</u>		
Garaje plaza zenbakia: 16	16,27 m2	1,66
Garaje plaza zenbakia: 17	15,48 m2	1,58
Garaje plaza zenbakia: 18	15,48 m2	1,58
Garaje plaza zenbakia: 19	15,48 m2	1,58
Garaje plaza zenbakia: 20	15,48 m2	1,58
Garaje plaza zenbakia: 21	14,95 m2	1,52
Garaje plaza zenbakia: 22	14,94 m2	1,52
Garaje plaza zenbakia: 23	16,37 m2	1,67
Garaje plaza zenbakia: 24	15,48 m2	1,58

2. BALDINTZA. IZAERA JURIDIKOA.

Baldintza agiri honek administrazio izaera du. Azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 86. artikulua arabera, jabari publikoko ondasunen aprobetxamendu berezia eta horien erabilera pribatiboa, okupazioa instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin bakarrik egiten denean, baimenaren mende egongo dira, edo, aprobetxamenduaren edo erabileraren iraupena lau urtetik gorakoa bada, emakidaren mende.

Horretarako, esleipen-prozesuaren baldintza-agiriak kontratu-izaera izango du, eta kontratua "erabiltzeko baimen" gisa kokatuko da, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 86. eta 92. artikuluen arabera.

Baimenak udal kiroldegiko garaje-plaza itxietako bat bakarrik erabiltzeko aukera ematen du, eta ez dago baimenduta erabilera hirugarrenei lagatzea.



3. BALDINTZA. HAUTAKETA ETA ESLEIPEN PROZEDURA.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.1 artikulua arabera, erabilera-baimenak esleitzeko modua zozketa izango da, agiri honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileen artean.

4. BALDINTZA. BAIMENEN IRAUPENA.

Erabilera-baimenak 4 urteko aldi luzaezin baterako ematen dira, esleipen erabakian ezarritako egunetik kontatzen hasita.

Hori guztiori, 7. klausulan ezarritakoaren kalterik gabe.

UKO EGITEA: Baimenaren esleipendunak baimenari uko egin diezaioke indarraldiko edozein unetan, betiere, gutxienez hilabete lehenago dagokion aurreabisua egiten badio Udalari

5. BALDINTZA. ORDAINDU BEHARREKO KANONA.

Esleipendun bakoitzak 57 euroko kanona ordaindu beharko du hilean (BEZa barne). Kanon hori urtero eguneratuko da urtarilaren 1ean, dagokion ordenantza fiskalaren bidez.

Kanona hiru hilero ordainduko da, aldez aurretik, hiruhilekoaren lehenengo hamabost egunen barruan.

6. BALDINTZA. LEHIATZEKO GAITASUNA.

Esleipen prozesuan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasuna izanik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako ezintasun eta bateraezintasun inolako kasutan ez egon eta honako baldintzak betetzen dituzten pertsonak:

- 1.- Eskakerak aurkezteko epe amaieran 18 urte beteta izatea.
- 2.- Eskoriatzan erroldatuta egotea. Eskatzailea pertsona juridikoa baldin bada, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.
- 3.- Turista-mailako ibilgailu baten jabe izatea.
- 4.- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko Zergan subjektu pasiboa izatea Eskoriatzako udalerrian.
- 5.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

— Norberak bere kabuz parte hartu ahal izango du edo baimendutako ordezkari baten bidez. Ordezkariak ahalorde askietsia izan beharko du.

— Esleipena eskaeran eskatzaile bezala dagoen pertsonari emango zaio.

7. BALDINTZA. ESLEIPEN PROZEDURA.

7.1.- ESKAERAK: AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA, BETEBEHARRAK ETA DOKUMENTAZIOA

Eskaria egiteak berarekin dakar baldintza agiria onartzea, eta baita aukeratutako datu guztiak zuzenak direla dioen erantzukizunpeko adierazpena egitea ere.



LEKUA ETA EPEA: eskariak I. eranskinen ereduari jarraiki aurkeztuko dira Udal Erregistro Orokorrean, goizeko 8etatik 14:30era, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, edo, telematikoki, HERRITARREN ATARITIK. Eskaerak aurkezteko epea 2025eko azaroaren 21ean amaituko da.

Eskaerarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. NANaren fotokopia, eskatzailea pertsona fisikoa denean.
2. Eskatzailea pertsona juridikoa denean, Erregistroan behar bezala inskribatutako eratzeko eskrituraren fotokopia.
3. Eskatzailea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotako kasuetan ez dagoela dioten zinpeko aitorpena (lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).
4. Ibilgailua duela justifikatzeko, ibilgailuaren dokumentazioaren fotokopia.
5. Zinpeko aitorpena, bertan eskatzaileak adierazi behar du zenbat garaje plaza dituen eskariak egiteko epea bukatzen den unean edo, hala bada, garajeren bat erabiltzen ote duen (errentan hartuta, doan utzita...).

Eskaera egiteak baldintza agiri honetako baldintza guztien edukia inolako baldintzarik gabe onartzea dakar.

Pertsona bakoitzak ezingo du eskaera bat baino gehiago aurkeztu. Hala ere, eta prozedura honetan eskatu diren garaje plaza esleitu ondoren esleitu gabeko plazarik geldituko balira, pertsona batek plaza bat baino gehiago erabili ahal izango du. Horretarako, eskaera egin beharko du interesdunak.

(Erroldatuta egoteko, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergen subjektua izateko Eskoriatzan eta udal zergen ordainketa egunean izateko baldintzak Udalak berak egiaztatuko ditu ofizioz).

7.2.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Esleipena egiteko oinarritzko irizpideak honako hauek izango dira:

- 1.- Eskoriatzako udalerrian garaje plaza baten jabe edo kotxea uzteko lokal baten jabe ez izatea: 10 puntu
- 2.- Eskoriatzako udalerrian garaje plaza baten jabe edo kotxea uzteko lokal baten jabe izatea: 5 puntu
- 3.- Puntuazioan berdinketaren bat izanez gero, zozketa publikoa egingo da.

7.3.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Alkatea
- Mahaikideak: Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileko bi zinegotzi.
Udaletxeko idazkari-kontuhartzailea.



- Idazkaria: Udalekoa edo berak eskuordetutako funtzionario bat.

7.4.- ESLEIPEN TRAMITEA

Kontratazio Mahaiak kalifikatuko ditu aurkeztutako dokumentuak.

Beharrezkoa balitz, Mahaiak hiru eguneko epea emango dio eskatzaileari aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akatsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko.

Eskariak aurkezteko epea igarota, baldintza agiri honetako baldintzak betetzeagatik garajeak erabiltzeko esleipenerako onartutako interesdunen zerrenda eta esleipenetik baztertutakoena, bazterketaren arrazoiarekin, onartuko da. Onartutako bakoitzari emandako puntuak ere adieraziko dira.

Zerrenda hori Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

Zerrenda horretan bi multzo agertuko dira: 1. MULTZOA. 10 puntu dauzkaten eskatzaileak. 2. MULTZOA. 5 puntu dauzkaten eskatzaileak.

Behin behineko zerrenda behin betiko onartuko da automatikoki, baldin eta 5 egun balioduneko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioen bat aurkezten bada, beste erabaki baten bidez onartu edo baztertuko da, eta erabaki horretan argitaratuko da ere behin betiko zerrenda.

Eskatzaileen zerrenda behin betiko onartzen denean, eta zozketa publikoa egin da, kontratazio mahaiak garajeak erabiltzeko baimenak esleitzeko proposamena egingo du.

BERDINDUTA DAUDENEN ARTEAN ZOZKETA EGITEKO PROZEDURA:

Zozketa eguna eta ordua udaletxeko iragarki oholean argitaratuko da, gutxienez 3 egun baliodun lehenago.

Hiru ontzi izango dira. 1. ONTZIAN garajeetako zenbakiak sartuko dira papertxoetan. 2. ONTZIAN 1. multzoko eskatzaileen izenak. 3. ONTZIAN 2. multzoko eskatzaileen izenak.

Zozketa 1. MULTZOKOEN artean egingo da aurrena. Esleipendun izango dira 2. ONTZITIK ateratako izenak, eta horietako bakoitzari 1. ONTZITIK ateratako zenbakiari dagokion garajearen erabilera esleitu zaio.

1. MULTZOKOEN artean zozketa egin ostean, eta eskaintza eskaria baino handiagoa delako esleitu gabeko garaje plazak geratzen badira, 2. MULTZOKOEN artean egingo da zozketa. Prozedura aurreko kasuan bezalakoa izango da.

Eskaria eskaintza baino handiagoa bada, lehentasun hurrenkeraren arabera zerrenda egingo da esleipendun izan ez diren eskatzaileekin, noizbait esleipendun izateko aukera egongo balitz ere etorkizuneko transmisioak direla-eta, hutsik geratutako plazengatik, norbaitek garaje plaza erabiltzeko eskubidea galtzeagatik... Zerrenda hori zozketa bidez egingo da, hautagaien izena ontzitik ateraz (esleipendun izan ez direnen artetik) eta lehentasuna zozketak ezartzen duena izango da.

Aldiz, eskaria eskaintza baino txikiagoa bada, Udalak alkatearen erabakiz esleitu dituzten garajeak, lehiaketa hau erabakia ostean eskari-orriak aurkezten diren hurrenkeran eta plaza kopurua bete arte.



Azken kasu horretan, baimenaren epea, esleipen egunetik prozedura honetan esleitutako baimenen epearen amaiera artekoa izango da.

7.5.-ESKUMENA DUEN ORGANOA.

Alkatetza da kontratazio hau egiteko eta espedientea izapidetzeko organoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriak ezarri bezala (lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

7.6.- ESLEIPENA.

Esleipena Alkate erabakiz egingo da.

Esleipena egin eta jakinarazita, esleipendunak 10 eguneko epean ordaindu beharko du, erabakiaren berri jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, lehen hiru hileko kanona eta bermea.

Aurreko paragrafoan esandako kontzeptuetakoren bat ordaindu gabe 10 eguneko epea pasatuta, hori justifikatzeko arrazoirik alegatu gabe, garajea erabiltzeko baimena zerrendako hurrengo eskatzaileari esleituko zaio, behin-behinean, Alkate erabakiz.

Ez ordaintzeko arrazoiren bat ematen bada, ahalmena ematen zaio Alkate jaunari epea luzatzeko edo itxaron zerrendako dagokionari erabilera baimena behin-behinekoz esleitzeko. Luzapena ezingo da 15 egun baino gehiagokoa izan.

Baimenaren indarraldia esleipen erabakian ezarritako egunetik hasiko da.

8. BALDINTZA. FIDANTZA.

Baimenaren esleipendun izateko proposatutakoak 65 euro jarri beharko ditu FIDANTZA bezala udal diruzaintzan. Horretarako, 10 egun baliodun izango ditu dagokion errekerimendua jakinarazten zaionetik kontaktzen hasita.

9. BALDINTZA. ESLEIPENDUNEN BETEBEHARRAK.

Garajeak erabiltzeko baimenaren esleipendunek betebeharrak hauek dauzkate:

1. Garajeak zaintzea eta funtzionamendu, garbitasun eta higiene egoera onean edukitzea, bere kargura izanik konponketak eta beharrezko diren mantentze lanak, edozein izanik ere horiek egiteko arrazoia eta gastua. Sarbideko arrapala konpontzeko gastuak Udalaren kontura izango dira.
2. Espresuki debekatuta dago garajeetan edo elementu komunetan edozein obra egitea, eta baita garajeen atzeko horma eraldatuko duen ezer egitea ere, udal baimenik gabe. Debekatuta dago ere instalazioetan honako materialak gordetzea: a) gai sukoiak edo eraikinarentzat arriskutsuak izan daitezkeenak b) Gai osasungaitzak.
3. Espresuki debekatuta dago garajeetan lanean aritzea.



4. Debekatuta dago garajeen erabilera beste bati lagatzea.
5. Gainerako titularrekiko harremanetan eta garaje-plazaren eta elementu komunen erabileran, bai eta norberaren ibilgailuarenean ere, behar bezalako arreta izan beharko da.
6. Baimenaren indarraldia amaitutakoan, garajea uztea, giltzak itzuli eta garajea libre eta hutsik lagata Udalaren esku, garajeen egindako obra edo instalazio finkoak ere bere horretan utziz.
7. Titularra hilez gero, oinordekoek eskubide eta betebeharrak subrogatu ahal izango dituzte baimenaren indarraldia amaitu arte.

10. BALDINTZA. DATUAK TRATATZEKO BAIMENA.

Datu pertsonalak babesteko lege organikoan eta datuak babesteko erregelamendu orokorrean xedatutakoak betez, eskatzaileei jakinarazten zaie beraien eskaeran eta esleipena egiteko beharrezko dokumentuak aurkezterakoan jasotako datu pertsonalak kontratuaren garapena egoki mantendu, bete eta kontrolatuko dela bermatzeko tratatuko dituela Udal honek.

Datu pertsonal horiek eskuratzeko eta zuzentzeko, eta datuen erabilera-baimena indargabetzeko eskubidea erabili ahal izango du noiznahi interesdunak. Horretarako, idatziz jakinarazi beharko dio Udalari.

11. BALDINTZA. BAIMENA AZKENTZEKO ARRAZOIAK.

Erabilera-baimena azkendu egingo da Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 100. artikuluan aurreikusitako edozein arrazoiengatik, eta baita honako hauengatik ere:

1. Baimenaren titularrak une bakoitzean indarrean dagoen sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratatze debekuetako bat izateagatik.
2. Kanona ez ordaintzeagatik edo baimenaren titularrari ordaintzea dagokion edo berak bere gain ordaintzeko hartutako edozein diru-zenbateko ez ordaintzeagatik.
3. Bermea edo horren eguneraketa ez ordaintzeagatik.
4. Baimenaren titularraren heriotzarengatik oinordekorik gabe.
5. Baldintza agiri honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik, baita horietako zati bat ere.
6. Garajea osorik edo horren zati bat lagatzeagatik edo azpierrengatzeagatik.
7. Nortasun juridikoa amaitzeagatik, konkurtso-adierazpena edo kaudimengabezia-adierazpenagatik, baimenaren titularra pertsona juridikoa denean.
8. Erabilera baimenaren titularrak bere gain hartutako beste edozein betebeharrak ez betetzeagatik.

12. BALDINTZA. KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA.



Baldintza agiri honetan aurreikusi gabekoetarako, honako hauetan xedatutakoari jarraituko zaio:

- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
- Toki erakundeen ondasunei buruzko erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea (lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).
- Osagarri moduan, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira, eta horrelakorik ez bada, zuzenbide pribatukoek.

Kontratu honen prestaketa eta esleipenarekin lotutako auzigaien berri izatea administrazioarekiko auzietako jurisdikzioari dagokio.

Jurisdikzio zibileko organoei dagokie aldean artean sortu daitezkeen auzigaiak erabakitzea.



1 ERANSKINA

ESKAERA EREDUA

Izen-abizenak:
 Jakinarazpenetarako helbidea:
 NAN:

Kiroldegiko garajeak erabiltzeko baimena emateko espedientearen berri izanda, honako hauek adierazi nahi ditut:

LEHENENGOA.- Kontratuaren oinarri den baldintza agiria ezagutu eta osorik onartzen dudala, lizitazioan parte hartzen dudala, eta, hilean 57 € ordainduta, garaje plaza bat erabiltzera konprometitzen naizela.

BIGARRENA.- Esleipendun izateko baldintza administratibo partikularren agirian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala, eta, zehazki, honako hauek:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotako kontratatze debekuetatik bat bera ere ez izatea. 9/2017 Legearen bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

- Trakzio mekanikodun ibilgailu baten jabe izatea (modelo:....., matrikula:.....).

- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko Zergan subjektu pasiboa izatea Eskoriatzako udalerrian.

- Eskaerak aurkezteko epe amaieran garaje plaz(ar)en titularra naizela/ez naizela (ezabatu ez dagokiona).

- garaje plaz(ar)en erabiltzaile naizela/ez naizela (ezabatu ez dagokiona)
ERRENTAMENDUAN.

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

- Jakinarazpenak bidaltzeko helbide elektronikoa honako hau dela:

HIRUGARRENA.- BAIMENA ematen diodala berariaz Eskoriatzako Udalarri garaje plaza bat eskatzeko bete behar diren baldintzak betetzen ditudala egiaztatzeko beharrezko datuak zuzenean jasotzeko sektore publikoko edozein erakundetik.

BAI ☐

EZ ☐

....., 20....(e)koaren(a)

Izenpea



PLIEGO DE CONDICIONES QUE HA DE REGIR LA ADJUDICACIÓN DE AUTORIZACIONES DE USO DE PLAZAS CERRADAS DE GARAJE UBICADAS EN EL POLIDEPORTIVO MUNICIPAL MANUEL MUÑOZ DE ESKORIATZA.

CLÁUSULA 1. OBJETO.

El presente pliego tiene como objeto establecer las condiciones de adjudicación de las autorizaciones de uso de 16 plazas cerradas de garaje ubicadas en dos plantas sótano del edificio del polideportivo municipal Manuel Muñoz de Eskoriatza.

A continuación se relacionan las plazas de garaje cuya autorización de uso son objeto de adjudicación, así como los m2 de superficie de cada una de ellas:

<u>PLANTA NIVEL INFERIOR:</u>	<u>CUOTA PARTICIPACION</u>	
Plaza de garaje nº2	14,87 m2	1,51
Plaza de garaje nº3	14,95 m2	1,52
Plaza de garaje nº4	15,48 m2	1,58
Plaza de garaje nº5	15,48 m2	1,58
Plaza de garaje nº6	15,48 m2	1,58
Plaza de garaje nº7	15,48 m2	1,58
Plaza de garaje nº8	14,95 m2	1,52
 <u>PLANTA NIVEL SUPERIOR:</u>		
Plaza de garaje nº16	16,27 m2	1,66
Plaza de garaje nº17	15,48 m2	1,58
Plaza de garaje nº18	15,48 m2	1,58
Plaza de garaje nº19	15,48 m2	1,58
Plaza de garaje nº20	15,48 m2	1,58
Plaza de garaje nº21	14,95 m2	1,52
Plaza de garaje nº22	14,94 m2	1,52
Plaza de garaje nº23	16,37 m2	1,67
Plaza de garaje nº24	15,48 m2	1,58

CLÁUSULA 2. NATURALEZA JURIDICA

El presente condicionado tiene naturaleza administrativa. Según el art. 86 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, el aprovechamiento especial de los bienes de dominio público, así como su uso privativo, cuando la ocupación se efectúe únicamente con instalaciones desmontables o bienes muebles, estarán sujetos a autorización o, si la duración del aprovechamiento o uso excede de cuatro años, a concesión.

A tal efecto, el pliego rector del procedimiento de adjudicación tendrá carácter contractual, enmarcándose el contrato como “autorización de uso” según los artículos 86 y 92 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.



La autorización permite el uso exclusivo de una de las plazas cerradas de garaje del polideportivo municipal, no estando permitida la cesión de uso a terceros.

CLAUSULA 3. PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN Y ADJUDICACION

De acuerdo con el artículo 92.1. de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, la forma de adjudicación de las autorizaciones de uso será el sorteo entre las personas solicitantes que cumplan con todos los requisitos establecidos en el presente Pliego.

CLÁUSULA 4. DURACION DE LAS AUTORIZACIONES

Las autorizaciones de uso se otorgan por un periodo de 4 años improrrogables, contados desde el día en que se fije en el acuerdo de adjudicación.

Ello sin perjuicio de lo establecido en la cláusula 7ª.

DESESTIMIENTO: El adjudicatario de la autorización podrá desistir de la misma, en cualquier momento de su vigencia, siempre que dé el correspondiente preaviso al Ayuntamiento con una antelación mínima de un mes.

CLÁUSULA 5. IMPORTE DEL CANON A ABONAR

Cada persona adjudicataria deberá abonar un canon de 57 EUROS mensuales (IVA incluido), canon que será objeto de actualización el 1 de enero de cada año a través de la correspondiente ordenanza fiscal.

El pago del canon se efectuará trimestralmente por adelantado dentro de los quince primeros días del trimestre.

CLAUSULA 6. CAPACIDAD PARA CONCURRIR

Podrán formar parte en el proceso de adjudicación las personas que, teniendo capacidad de obrar, no están incursas en ninguno de los casos de incapacidad e incompatibilidad previstos en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y en las que concurran los siguientes requisitos:

- 1.- En el momento de finalización del plazo de presentación de instancias tener cumplidos 18 años.
- 2.- Estar empadronado/a en el término municipal de Eskoriatza. Cuando el/la solicitante fuera persona jurídica, tener el domicilio social en el municipio de Eskoriatza.
- 3.- Ser propietario/a de un vehículo clase turista.
- 4.- Ser sujeto pasivo del Impuesto sobre Vehículos de tracción mecánica en el término municipal de Eskoriatza.
- 5.- Estar al corriente en el pago de los impuestos municipales.

— Se podrá concurrir por si o representado por persona autorizada mediante poder bastante.

— La adjudicación se otorgará a favor de la persona que conste declarada como solicitante en el escrito de solicitud.



CLAUSULA 7. PROCESO DE ADJUDICACION

7.1.- SOLICITUDES: LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACION, FORMALIDADES Y DOCUMENTACION

La presentación de la solicitud presume la aceptación incondicionada del pliego de condiciones, así como la declaración responsable de la exactitud de todos los datos presentados.

LUGAR Y PLAZO: Las solicitudes se presentarán con arreglo al modelo del Anexo I en el Registro General del Ayuntamiento, de 8:00 a 14:30 horas de la mañana, de lunes a viernes laborables, o de manera telemática en el PORTAL DEL CIUDADANO, y dentro del plazo comprendido hasta fecha 21 de noviembre de 2025.

A la solicitud se adjuntará:

1. Fotocopia del D.N.I cuando la persona solicitante sea una persona física.
2. Cuando la solicitante fuera persona jurídica, fotocopia de la escritura de constitución debidamente inscrita en el Registro.
3. Declaración jurada en la que el /la solicitante afirme no hallarse comprendido en los supuestos previstos en el art. 71 La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014
4. Justificación de que tiene un vehículo mediante la fotocopia de la documentación del vehículo
5. Declaración jurada por la que el/la solicitante acredite la(s) plazas de garaje de las que es titular en el momento de terminar el plazo de presentación de solicitudes, ó en su caso, si por cualquier concepto es usuario de alguna plaza (alquiler, cesión gratuita,...)

La presentación presume la aceptación incondicionada del contenido de la totalidad de las cláusulas de este Pliego.

No podrá presentarse más de una solicitud por persona . No obstante y para el supuesto de que quedasen plazas de garaje vacantes tras la adjudicación de las que se hubiesen solicitado en el presente procedimiento, se admitirá el uso de más de una plaza por persona, debiendo presentarse por el interesado solicitud al respecto.

(El cumplimiento de los requisitos de empadronamiento, de ser sujeto del IVTM en el término de Eskoriatza y el estar al corriente en el pago de los impuestos municipales serán comprobados de oficio por el Ayuntamiento)

7.2- CRITERIOS DE ADJUDICACION

Los criterios básicos para la adjudicación serán los siguientes:

1º.- No ser propietario/a de una plaza de garaje, ó local donde estacionar el vehículo, dentro del término municipal de Eskoriatza: 10 puntos



2º.- Para el caso de que el solicitante sea propietario/a de una plaza de garaje, ó local donde estacionar el vehículo, en el término municipal de Eskoriatza: 5 puntos

3º.- En caso de que se produzca algún empate en la puntuación, se efectuará sorteo público.

7.3 - MESA DE CONTRATACION

La Mesa de Contratación estará integrada por:

- Presidente: El Alcalde
- Vocales: Dos concejales de la Comisión Informativa de Organización y Hacienda

Secretaria-Interventora del ayuntamiento.

- Secretaria: La de la corporación ó funcionario/a en quien delegue.

7.4.- TRAMITE DE ADJUDICACION

La Mesa de Contratación calificará la documentación presentada.

Si fuera necesario, la Mesa concederá un plazo de tres días para que el solicitante corrija los defectos u omisiones subsanables observados en la documentación presentada.

Terminado el plazo de presentación de solicitudes, se aprobará la relación de los interesados admitidos a optar por la adjudicación del uso de los garajes por cumplir los requisitos de este Pliego y la relación de no admitidos con el motivo por el que quedan excluidos. A su vez se indicarán los puntos asignados a cada admitido.

Dicha lista se hará pública en el Tablón de Anuncios de la Casa Consistorial.

En la misma los solicitantes se agruparán en dos cupos: CUPO 1. Los solicitantes que tengan 10 puntos. En el CUPO 2 los solicitantes que tengan 5 puntos.

La relación provisional quedará automáticamente aprobada definitivamente en el supuesto que no se presentaran reclamaciones durante el plazo de 5 días hábiles. Caso de presentarse alguna reclamación, la misma será aceptada o rechazada mediante nueva resolución en la que se aprobará la lista definitiva y se publicará nuevamente.

Aprobada definitivamente la relación de solicitantes, previo sorteo público la mesa de contratación hará una propuesta de adjudicación de las autorizaciones de uso de los garajes.

PROCEDIMIENTO DEL SORTEO ENTRE LOS EMPATADOS:

El día y la hora del sorteo se publicarán en el Tablón de Anuncios con una antelación mínima de 3 días hábiles.

Se dispondrá de tres urnas. En la URNA 1 se introducirán las papeletas en las que consten los números asignados a cada uno de los garajes. en la URNA 2 el nombre de los/as solicitantes del cupo 1. En la URNA 3 el nombre de los/as solicitantes del cupo 2.



El sorteo se hará primero entre los/as solicitantes del CUPO 1: Resultarán adjudicatarios/as el/la solicitante cuyo nombre se saque de la URNA 2 y al mismo se le adjudicará el uso del garaje cuyo número se saque de la URNA 1

Para el caso de que realizado el sorteo entre los/as solicitantes del CUPO 1 quedaran plazas de garaje sin adjudicar porque la oferta es mayor a la demanda, se procederá al sorteo entre los/as solicitantes del CUPO 2. El procedimiento será como en el caso anterior.

Si la demanda supera la oferta, con los/as solicitantes que no han resultado adjudicatarios/as, se confeccionará una lista de espera con orden de preferencia para que puedan optar a la adjudicación a través de futuras transmisiones, declaraciones de vacantes, pérdida del derecho de uso... Dicha lista se confeccionará por sorteo, sacando de cada urna el nombre de los/as candidatos/as que no han resultado adjudicatarios/as. El orden de preferencia será el que resulte del sorteo.

Si por el contrario, la demanda es inferior a la oferta, el Ayuntamiento procederá a adjudicar por Resolución de Alcaldía los garajes atendiendo la antigüedad de la fecha de entrada de las solicitudes que se cursen con posterioridad a la resolución del presente concurso y hasta completar el número de plazas.

En este último caso el periodo de la autorización se ajustará al tiempo que quede por restar desde la fecha de la adjudicación hasta la finalización del plazo de las autorizaciones que se adjudiquen en virtud del presente proceso.

7.5.- ORGANO COMPETENTE

El órgano competente para efectuar la presente adjudicación y tramitar el expediente es el Alcalde, de conformidad con la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

7.6 -ADJUDICACION

La adjudicación se hará por acuerdo de la Alcaldía.

Efectuada la adjudicación y notificada, el adjudicatario deberá de abonar dentro del plazo de 10 días , a contar desde el día siguiente al del recibo del acuerdo, la cantidad fijada en concepto de canon del primer trimestre y la fianza.

Transcurrido el plazo de 10 días sin que se efectúe el abono de cualquiera de los conceptos referidos en el párrafo anterior, y no alegada causa que lo justifique, se procederá por Resolución de Alcaldía a adjudicar provisionalmente el uso del garaje al solicitante siguiente que por orden de preferencia esté en la lista de espera.

Si se alega causa alguna por la que no se ha efectuado el pago, se faculta al Sr. Alcalde, para que a la vista de la misma adopte acuerdo que estime procedente en aras a conceder una prórroga ó adjudicar provisionalmente la autorización de uso a quien se halla en la lista de espera. Dicha prórroga no podrá exceder de 15 días.

El periodo de vigencia de la autorización empezará a contar desde la fecha que se fije en el acuerdo de adjudicación.



CLAUSULA 8. FIANZA

La persona propuesta como adjudicatario/a de la autorización, dentro del plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la notificación del correspondiente requerimiento, deberá de depositar en la Depositaria Municipal, en concepto de FIANZA, la cantidad de 65 euros

CLAUSULA 9. OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS ADJUDICATARIAS

Las personas adjudicatarias de las autorizaciones de uso de los garajes vendrán obligados a :

1. Conservar los garajes y mantenerlos en constante y perfecto estado de funcionamiento, limpieza e higiene, siendo a su cargo las reparaciones y trabajos de mantenimiento necesarios, cualquiera que sea su importe y causa. Los gastos de reparación de la rampa de acceso será a cargo del Ayuntamiento.
2. Está expresamente prohibido realizar cualquier tipo de obra en los garajes ó en los elementos comunes, así como cualquier actuación que afecte a la pared trasera de los garajes, sin previa autorización municipal; así como almacenar en cualquiera de las instalaciones materiales que tengan el carácter de: a) inflamables o presenten riesgo para la seguridad del inmueble b) Insalubres
3. Está expresamente prohibido desarrollar cualquier tipo de actividad en los garajes.
4. Está prohibido ceder a terceros el uso de los garajes.
5. En sus relaciones con los demás titulares y en el uso de la plaza de garaje y de los elementos comunes, así como en el del vehículo propio, habrá de observarse la diligencia debida.
6. Al finalizar el periodo de vigencia de la autorización, abandonar el garaje, con entrega de las llaves, dejándolo libre y vacío a disposición del Ayuntamiento junto con las obras o instalaciones fijas realizadas
7. En caso de fallecimiento de la persona titular, los herederos podrán subrogarse en los derechos y obligaciones de dicha persona hasta la extinción del periodo de vigencia de la autorización.

CLAUSULA 10. AUTORIZACION PARA TRATAMIENTO DE DATOS.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento general de protección de datos, las personas solicitantes quedan informadas de que los datos de carácter personales que, en su caso, sean recogidos a través de su solicitud y demás documentación necesaria para proceder a la adjudicación serán tratados por este Ayuntamiento con la finalidad de garantizar el adecuado mantenimiento, cumplimiento y control del desarrollo del contrato.

La persona interesada podrá ejercer en cualquier momento el derecho de acceso, rectificación y cancelación de la autorización del uso de dichos datos de carácter personal. Para ello lo comunicará por escrito dirigido al Ayuntamiento.

CLAUSULA 11. CAUSAS DE EXTINCION DE LA AUTORIZACIÓN



La autorización de uso se extinguirá por r la concurrencia de cualquiera de las causas previstas en el art. 100 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas y , además, por las siguientes:

1. Cuando concurra en el titular de la autorización alguna de las prohibiciones para contratar reguladas en al legislación de contratos del sector publico vigente e en cada momento.
2. La falta de abono del canon o de cualquiera de las cantidades cuyo pago haya asumido o corresponda al titular de la autorización.
3. La falta de pago de la fianza o de su actualización.
4. Fallecimiento del titular de la autorización sin herederos.
5. El incumplimiento , siquiera parcial, de las obligaciones impuestas en el presente Pliego.
6. La cesión o subarriendo total o parcial del garaje.
7. Extinción de la personalidad jurídica , declaración de concurso o la declaración de insolvencia cuando el titular de la autorización fuera una persona jurídica.
8. El incumplimiento de cualquier otra obligación asumida por el titular de la autorización de uso .

CLÁUSULA 12.- REGIMEN JURIDICO DEL CONTRATO

En todo lo no previsto en este Pliego de condiciones, se estará a lo dispuesto en:

- La Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas.
- El Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio.
- La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014
- Supletoriamente se aplicarán las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.

El orden jurisdiccional contencioso-administrativo será el competente el conocimiento de las cuestiones que se susciten en relación con la preparación y adjudicación de este contrato.

El orden jurisdiccional civil será el competente para resolver las controversias que surjan entre las partes.



ANEXO 1

Se presentará conforme al siguiente modelo:

«D. _____, con domicilio a efectos de notificaciones en _____, c/ _____, n.º _____, con DNI n.º _____, y teléfono nº _____, enterado del expediente para la concesión de la autorización del uso de las plazas de garaje del polideportivo municipal, hago constar:

PRIMERO: Que conozco el Pliego que sirve de base al contrato y lo acepto íntegramente, tomando parte de la licitación y comprometiéndome al uso de una plaza de garaje por el IMPORTE DE 57 €/ mensuales

SEGUNDO. Que cumplo con todos los requisitos previos exigidos por el pliego de cláusulas administrativas particulares para ser adjudicatario, en concreto:

- Que no está incurso en una prohibición para contratar de las recogidas en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.]
- Que soy titular de un vehículo de tracción mecánica modelo: _____, matrícula _____
- Que soy sujeto pasivo del Impuesto sobre Vehículos de tracción mecánica en el término municipal de Eskoriatza.
- Que SI / NO (tachar lo que no proceda) soy titular de _____ plaza/s de garaje en le momento de terminar el plazo de presentación de solicitudes
- Que SI/ NO (tachar lo que no proceda) es usuario en concepto de ARRENDAMIENTO de _____plaza/s de garaje.

Que estoy al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de las obligaciones con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

Que la dirección de correo electrónico en que efectuar notificaciones es _____.

TERCERO. Que AUTORIZA expresamente al Ayuntamiento de Eskoriatza para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la solicitud de una plaza de garaje.

BAI/Sí ☐

EZ /No ☐

En _____, a ____ de _____ de 20____. Firma,